

# **GIZA DUINTASUNA MAITE DUDALAKO SORTZEN DUT**

## **DERECHOS HUMANOS EN EL ARTE: ¿MUSA O (AUTO)CENSURA?**

**SOLASALDIAREN LABURPENA**  
RESUMEN DEL COLOQUIO



# PARTEHARTZAILEAK

## PARTICIPANTES



### La Furia

Rap.  
Feminismo.  
Queer.



### Ekaitz Goikoetxea

Sortzailea eta aktibista.  
Creador y activista.



### Leire Palacios

Kazetaritza, berrikuntza, sormena.  
Periodismo, innovación, creación.

# ZERGATIK?

Baketikek Giza Eskubideak eta Artearen inguruko gogoeta sustatzearen ikuspegia partekatu izan du azken aldian: hainbat artista, kulturgile eta bakegilerekin kontrastatutako sententzioa da artea tresna oso baliagarria izan daitekeela gure bizikidetzan sustatzeko bideetan, baina, era berean, artistek ezin izan dutela beren sormena guztiz aske bizi izan.

Horretaz hitz egiteko normalean erabiltzen ditugun espazioetatik aldendu (formalagoak, instituzionalagoak izan ohi direnak), eta giza eskubideen diskurtsoa eta eztabaida foro informaletara zabaltzea ezinbestekoa iruditzen zaigunez, musika, gaua eta gazteekin gehiago harremantzen den espazio batera gerturatu nahi izan dugu.

Baketiken, artearen erabileraren defendatzaile sutsuak gara, giza eskubideen mezuak eta filosofia zabaltzeko erreminta boteretsua dela pentsatzen dugulako.

En este sentido, la creatividad nos aporta una fórmula de ir más allá de lo que somos capaces de articular de manera racional: nos empuja a generar nuevas asociaciones de ideas, enfocarnos en nuevas conclusiones o construir, casi de manera intuitiva e incluso visceral, soluciones diferentes e innovadoras<sup>1</sup>.

Más allá de debates en torno a los derechos humanos -que son legítimos y darían para mil conversaciones-, en nuestra práctica, en nuestro trabajo diario, hemos comprobado es que el marco de los derechos humanos acerca a un espacio común a personas que quizá tiene una forma muy distinta de ver y percibir el mundo y eso les ofrece una posibilidad de encontrarse y reconocerse.

Por su parte, este lenguaje simbólico del arte se convierte para mucha gente en “espacio seguro”, en el que “la persona creadora toma el control de su mundo interno para tratar y dar sentido a recuerdos difíciles de evocar y expresar”<sup>2</sup>. A su vez, la persona receptora de esa expresión artística puede recoger, revalidar o rechazar y contestar esas vivencias personales que quiso transmitir el artista e incluso puede dotarlas de otros significados.

Bajo el título de “Giza duintasuna maite dudalako sortzen dut - Derechos humanos en el arte: ¿musa o (auto)censura?”<sup>3</sup>, Baketik buscó generar un nuevo encuentro para abordar todos estos nudos. Por eso, este espacio creado con La Furia -representante del mundo musical y específicamente el rap, feminista y activista queer-, Ekaitz Goikoetxea -creador y activista, bertsolari, entre otras facetas artísticas-, y Leire Palacios -del campo del periodismo, la innovación y la creación-, busca sentarnos a conversar, a pensar juntas, a escuchar y re-escuchar, a generar un diálogo sobre temas que quizá nunca pudimos plantear o hacerlo de este modo<sup>4</sup>.

---

<sup>1</sup>Arte y creatividad para repensarnos.

En <https://baketik.org/imagenes/Acento%202021.pdf>

<sup>2</sup>Adiorik gabe.

<sup>3</sup>Título surgido de la creatividad de Maialen Lizarralde, de Baketik.

<sup>4</sup> Esta relatoría ha sido realizada por personas de Baketik, en base a lo escuchado y vivido en la sesión. Por tanto, no representa necesariamente las palabras exactas de La Furia, Ekaitz Goikoetxea y Leire Palacios, sino la interpretación de Baketik.

# ARTE Y CREATIVIDAD

## SOLASALDIAN

Una de las primeras cuestiones que nos preguntamos desde Baketik es valorar qué rol han jugado las disciplinas en la defensa de los derechos humanos o al revés contra derechos humanos<sup>5</sup>.

En este sentido, se ve que el arte y las disciplinas donde cada cual habita habilitan la posibilidad de legitimar emociones, vivencias, percepciones. Otorgan un espacio donde legitimar pensamientos y emociones que no son siempre bien recibidos en otras esferas de nuestra vida.

A su vez, la cultura nos permite ir más allá de nuestra realidad cotidiana, conocer aspectos diferentes. Por ejemplo, esto sucede cuando nos acercamos a expresiones culturales que representan a personas racializadas, entornos empobrecidos, etc. Aunque a menudo, también nuestra sociedad o la industria y el capitalismo tiende a usurpar o utilizar esas expresiones culturales y vaciarlas de contenido político, utilizando la imagen y el estilo, pero sin el trasfondo, tal y como comentaba La Furia. De este modo, expresiones artísticas como el hip hop, que nacen como una alternativa en entornos de violencia y que son, por tanto, una fórmula de defensa de los derechos humanos en contextos violentos, se desvirtúa, hasta tal punto que puede llegar a ser incluso denigrante para las mujeres, según comentaba La Furia. De este modo, existe el riesgo de que algunos sistemas dominantes, como el sistema patriarcal capitalista, presente, a su entender, en la industria musical, vacía de contenido diferentes expresiones culturales, cuyo origen es otro absolutamente diferente. De ahí, la importancia de mirar las culturas desde sus raíces y por qué nacen.

Preguntados por si había sido difícil ubicar su arte en la defensa de los derechos humanos o si sienten que han vivido censura, Leire Palacios compartía sus experiencias en la literatura o en el ejercicio del periodismo, planteando en esas dos disciplinas el concepto de derechos humanos es muy diferente, planteando que el periodismo tiene caminos muy marcados sobre qué visión de los derechos humanos es la que se debe dar, según en qué medio de comunicación estés trabajando.

Bere aldetik, Ekaitz Goikoetxeak bertsogintzaren errealitatea gerturatu zuen, eta bertan bat-bateko bertsogintza edota bertso jarrian gertatzean direnen inguruan aritu zen, gaia jarrita edota gai librea izateak markatzen baitu esan daitekeena. Sormena eta artearen askatasunaren inguruan, Ekaitzek ere islatzen du gaia jarrita datorrenean, pertsonaia inposatua dela, ez duela norberak erabakitzen, eta hainbat rol izan ditzakezula saio batean, eta hori ere interesgarria dela, norberaren

---

<sup>5</sup>La facilitación del espacio fue realizada por Aintzane Gámiz, de Baketik.

burutik ateratzeko, enpatia ariketa bat balitz bezala, nolabait, bestearen rolean jarri behar izana. Berarentzat beti da ariketa interesgarria zuk sinesten ez duzunaren rola hartzea. Bestalde, librean aritzean, bakoitzak erabakitzen du zer eta zein ikuspegietatik kantatu.

Bere iritziz, askotan bertsolaritza hartzen da herriaren ahotsa bezala, eta neurri batean hala ere ulertzen du berak, baina errealitatearen hainbat ertz ez direla behar bezala jorratzen ere aitortzen du. Adibidez, emakume bertsolariek indarkeria jasan dutela aipatu zuen Ekaitzek, eta motibazio politikoa gutxi jorratu dela ere aipatu nahi izan zuen. Adibidez, bere ustez ETAk eragindako biolentziari ez zaio kantatu.

Era honetan, partaideen hitzetan ere ikusten dugu orohar inork ez duela ozen giza eskubideen kontra egiten euren disziplina artistikoetan, baina argi dago ere isiltzearen egoerak ez duela giza eskubideen babesa bermatzen.

Baketik convocó a estos tres artistas por entender que, de una manera u otra, se habían posicionado con su arte a favor de los derechos humanos o en contra de vulneraciones de derechos. Pero quisimos saber si este posicionamiento era realmente consciente o surgía de otra esfera.

La Furia consideró que ese posicionamiento en su caso surgía de una forma no tan consciente, a priori, pero que, mirando atrás, el hecho de coger la palabra, ponerse encima de los escenarios... todo eso es también trabajar en favor de los derechos humanos, en la medida en que se generan espacios donde otras personas se sienten reflejadas.

Leirek bere aldetik azpimarratu zuen oso garrantzitsua dela zure burua errebisio permanentean izatea, nekeza dela baina egin beharrekoa ere. Norbait elkarrizketatzean ere aukeratu behar dela nondik elkarrizketatzen duzun. Zentzu horretan, kazetariak tresna izan behar du, eszenatokia sortzeko besteen ahotsa era natural eta organiko batean entzutera eman ahal izateko. Leireren ustez, kazetariak ere aukera dute erabakitzeko nori eman ahotsa ala ez. Eta kazetariak jakin behar du bera non dagoen, nondik egiten duen lan. Neutraltasuna ezinezkoa da, bere ustez, baina begirada non jartzen dugun jakin behar da, errebisioa egin.

Ekaitzek aitortu zuen bera saiatu izan dela ahalik eta pertsona osoena eta askeena izaten, bere askatasuna bilatuz baina ingurukoena ere bai. Ogibidez irakaslea izateak asko laguntzen omen dio artea ere sustatzeko unean, ikuspuntu ezberdinak eskaintzen baitizkio bere lanak, herriaren lagina diren orotariko ikasleak eta orotariko gurasoak ezagututa. Horrela, bere egunerokoan bizi ditut giza eskubideen urraketak: bullying-a ikasleengan, haur motxiladunak, desagertarazpenak, bizkartzainak eraman dituzten lankideak, etxegabetzea pairatu dutenak... Ingurukoak ezagutzea, begiratzen jakitea, sakontzea... jo zuen bide garrantzitsutzat Ekaitzek. Eta horrekin lotuta, bertsolaritza askagunea da eta bitartekaria ere, egoera horiei ere irtenbidea emateko. Egoerei hitza eta ahotsa jartzen, pentsatuz inguruari on egiten diola eta bere buruari ere bai.

Zentsuraren aurrean edota askatasunez jokatzeko gizartean bizi garen ala ez proposamenaren aurrean, La Furiak baieztatu zuen printzipioz ez duela sentitu zentsura, baina bere ustez hori dela bere arteari garrantzia ez zaiolako ematen, berak landutako gaiak, emakumeen errealitatea, besteak beste, ez zaizkiola inori axola.

La Furia verbaliza una realidad en la que se evidencia las dificultades de visibilizar las vivencias de las mujeres, que están fuera de los programas de máxima audiencia o de los órganos de poder. Frente a ello, también muestra que el feminismo se ha hecho mainstream y que está consiguiendo hacer entender que muchas formas de hablar, chistes y actitudes no pueden seguir aceptándose porque son dañinos para una parte de la sociedad. Esto es una conquista, siguiendo a La Furia. Ella también reflexionaba sobre este supuesto debate en donde se mezcla la libertad de expresión con la excusa de dañar a gente que está peor a través de un supuesto humor. Reírse de quien está peor no es libertad de expresión, como señaló.

Bere aldetik, Leirek aipatzen zuen printzipioz kazetaritzan ez dagoela zentsurarik, estilo liburuak eta ildo editorialak daudela eta haiek markatzen dituztela jarraitu beharreko bideak. Horietan sartzen bazara ondo, bestela kanpoan geratzen zara. Gauzak nola kontatu behar diren, ertzak non dauden markatzen dute, baina era berean marrak oso finak dira. Kazetaria saiatzen da orohar bere ideologia duen hedabide batean lan egiten, bizigarria izateko.

Barrutik edo norberatik datorren zentsurari dagokionez, Leirek onartzen du bere burua asko autozentsuratu duela, eta baita bere gorputza ere: aske izatea nahi duen arropa eramateko, bere irudiaren analisi permanentea egitearen errealitatea.

Zentzu horretan, bere hitzetan ikusi genuen ingurua oso garrantzitsua dela ere horri aurre egin ahal izateko: ahizpatasuna, zentsurari eta autozentsurari aurre egin ahal izateko gakotzat jo zuen, zentsura ez delako isolatutako zerbait, baizik eta sistematikoa den errealitatea.

Ekaitzek onartzen zuen ere saiatu izan dela, baldintzak baldintza, ahalik eta askeen jokatzen, beste inoren askatasunean txarrerako egin gabe. Bizipen gogorra izan duela partekatu zuen, ez daki oso ondo zentsura den, baina bai baldintzatu diola gaztetxoetatik: zer abestu zezakeen eta zer ez esan izan diote, eta berak urraketa guztiez aritzeko ideia zuen. Miguel Angel Blanco hil zutenean gaitzetsi zuen, eta bertso saio batean parte hartzera uko egin zion egun horretan, bere ustez ez baitzegoen festarako motiborik. Erabaki horrek antolatzaileen ukoa eta bortizkeria ekarri zion. Pertsona talde batzuen jazarpena ere pairatu izan du, eta bere hitzetan hau gertatu izan zaio inoiz ETAREN biolentzia gaitzetsi zuelako.

Aurrekoari jarraiki, Ekaitzek partekatu zuen Isaias Carrascoren erahilketaren egunean bertso saioa zuela, eta agurrean esan zuen kostatuko zitzaigula berriz bizitzen hastea. Hori esan eta 6 segundoz inork ez zuen txalo egin, deseroso zeuden. Amaieran pertsona bat gerturatu zitzaion eta galdetu ea zer behar zuen hori egiteko. Eta 16 urte pasa badira ere, oso bertsokide eta pertsona gutxi gerturatu zaio urte horietan horretaz ezer hitz egin ahal izateko. Ekaitzek argi uzten du horrelakoak bakarrik gerturatu zaizkiola ETAREN biolentzia salatzean, ez beste eskubideen urraketak islatu dituenean.

La Furia señala que tomamos la decisión de estar o no estar, con las consecuencias que tenga eso. Ella plantea por ejemplo que toda artista conoce “las claves del no éxito”, es consciente de que lo que ella hace “no va a sonar”. Tiene que ver con la autocensura o con la libertad que ha decidido tomar en su pasión o su trabajo. Siguiendo su reflexión, La Furia planteaba que escuchando al resto de invitados, le hizo rehacer su propia reflexión, y consideró que sí se había autocensurado ella también.



Desde Baketik se señalaba que en todo esto también han tenido su influencia las lógicas de las redes sociales y la inmediatez, la duda de cómo se verá aquello que colgamos en las redes.

Leirek gogorazi zuen informazioa eskubide bat dela, baina informazioa industria bilakatzen ari dela ere bai, eta horrekin batera hizkuntza eskubideen urraketa ere mintzo zen. Bere ustez, aurretik ere aipatutako ildotik, sistemek sortzen duten gurpiletik ateratzeko moduko sistema bat eraikitze behar gaude, eta bere ustetan ezagutzen dugun sistemak ez du jendea hiltzen, baina sistemak hiltzen uzten du.

Ekaitzek beste adibide bat jarri nahi izan zuen, identitatea eta transexualitatearen arloan. Bere ustez edozein gaietan zure artearekin inplikatzeko bazara, gizarteak asuntzen du horretarako motibazioa izan daitekeela zu ere kolektibo edota talde horretako parte zarelako. Asko kezkatzen du, beraz, giza eskubideen alde egitea pentsatzen dela arazoak benetan zure baitan pairatzen duzunean besterik ez, eta bere ustez bustitzeko ez dagoela zipriztinduta egon beharrik.

La Furia se sumó a esta reflexión y alegó que eso nos habla de una sociedad que no empatiza, bajo el lema de “si no te toca por qué te metes”.

Volviendo a los medios, Leire también planteó la realidad de buscar titulares polémicos y criticó esa idea de que “todo vale”. Todo ello de la mano de la pregunta, no resuelta, de si la libertad de expresión tiene que tener marcos.

Siguiendo con la reflexión e incluyendo una reflexión sobre si ese “todo vale” debe ser con dinero público, La Furia recordaba cómo en determinados momentos de su vida, como el de la juventud, por ejemplo, existe una suerte de necesidad de romper con todo, y que el arte nos da esa posibilidad y nos la tiene que dar. Hay lugares que hay que generar, un no lugar para poder ser otras cosas. En sus palabras se leía que las múltiples expresiones pueden existir, pero no con dinero público, sobre todo cuando se utiliza ese espacio y dinero público para hacer algo que parece transgresor, pero que en realidad está yendo contra la dignidad humana de alguien que tiene vulnerados sus derechos.

Leirek ere defendatu zuen arteak eta sormenak ez duela zertan intenzionalidadea izan behar. Berak ere ikusten zuen sormenean erosotasunaren “arriskua” dagoela, hau da, eroso bagaude hainbat diskurtsoekin da zilegitasuna ematen diegulako. Berarentzat, beraz, arrakala sortzea beharrezkoa da, besteen diskurtsoak entzuteak gure lekuan jarriko gaitu eta. Adibidez ETAren bertsoa eta gero isilunea. Beharrezkotzat jotzen du momentu hori. Entzun behar ditugu, hobe da entzutea eta ezagutzea. Ahots horiek badaude, hobe da ezagutzea, bere hitzetan.

Ekaitzek, aurreko gogoetari berriz helduz, partekatu zuen berak ETAko biolentziaren biktimek “Gora ETA” artean entzutean, abestean, nola sentituko duten ezin duela alde batera utzi. Eta berak jakin nahiko zuen ea horrelakoak abesti batean sartzen dutenean benetan pentsatzen ote duten botatako mezua edota atzetik zer dagoen jakin gabe abesten duten. Ekaitzek dio berari isiltasunak kezkatzen diola, hitz egin behar dela. Bera kontziente da letra txikitzaileak direla askotan arrakasta dutenak, eta publikoarekin partekatu zuen ez duela ulertzen zergatik ez garen eraikitzaileak gure harremanetan edota artean.

La Furia planteaba que el arte se hace desde una necesidad propia, generalmente cuando estás mal. Ella ve que vivimos en una cultura del humor, basada en



meterse con los demás, la cultura del insulto fácil. Una cultura crispada, en sus palabras.

Leire reflexionaba sobre nuestra participación en sociedad desde un sistema de creencias, desde moldes sociales que nos amoldan y no nos dejan ver más allá.

Ekaitzek fokoa jarri nahiko zuen elkarbizitzan. Berarentzat gizartea “giza” eta “arte” batzen duena baita. Haren ustez, oso gotortuta gaude bakoitza bere lubakian. Gutartasunean gaude eta pausu bat eman behar da elkarbizitzarako: bada garaia trintxeratik ateratzeko. Elkarbizitza, besteari begiratzea, eta taldekeriatik ateratzea izan ziren bere proposamenak.

La Furia invitó a mirar para dentro, ver nuestros privilegios, ver dónde hay que callarse y dejar a otras hablar. Hacia esa convivencia necesitamos valentía para ponernos delante y decir algo que consideramos injusto, según su percepción, pero también saber callar cuando alguien que está más vulnerado que tú toma la palabra.

# REFLEXIONES INACABADAS<sup>6</sup> ...

El encuentro resultó finalmente corto, pero intenso: las 3 voces que se conocían y juntaban ese día demostraron que el arte y los derechos humanos se entrecruzan mucho más de lo que solemos tender a imaginar, y mucho más de lo que somos conscientes. Leire Palacios, Ekaitz Goikoetxea y La Furia compartieron de manera transparente sus vivencias y reflexiones, que también se iban enriqueciendo y amoldando en diálogo entre los 3. Las reflexiones del público también se sumaron para evidenciar que necesitamos más espacios y encuentros, para poder seguir conversando, viéndonos, escuchándonos, y habilitando posibilidades para repensarnos, desde el arte, la creatividad y la defensa de los derechos humanos. Porque, por mucho que hayamos hablado o callado ya, siguen existiendo vértices, nudos y brechas que abordar.

---

<sup>6</sup> Relatoría y reflexiones de la mano de Mainer Maraña, de Baketik.



**GIZA DUINTASUNA  
MAITE DUDALAKO  
SORTZEN DUT**

**DERECHOS HUMANOS  
EN EL ARTE: ¿MUSA  
O (AUTO)CENSURA?**

---

**Antolatzailea**  
Organiza:

**baketik**

**Laguntzaileak**  
Colaboran:

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



**ETORKIZUNA  
ORAIN  
ES FUTURO**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

BERDINTASUN, JUSTIZIA  
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAIA  
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,  
JUSTIZIA Y POLÍTICAS SOCIALES